

BALIABIDEAK

Baliabide ereduak, hobetzeko aukerak daudela da ustea. Horrela, produktua gero eta gehiago hobetuko da, beti ere oinarria berdin mantentzen, baina beti produktua eguneratzen, eta hobetzen. Horrela, bezeroengan konfidantza bat ezartzea da plana, hauek mantentzeko, eta produktuari buruz ongi hitz egiteko, arrakasta lortuz.

Baliabide fisikoak ere behar izango dira. Adibidez, materialak eta amaitutako produktuak gordetzeko toki bat eta amaitutako produktua polikiroldegira eramateko ibilgailu bat ere. Gainera, makina bat ere beharko da produkzioarako, hori mantentzeko pertsona batez gain.

Baliabide intelektualetan, berriz, patente bat eskatubehar izango da. Giza baliabideei dagokionez, sormena behar izango da produktua behin eta berriz hobetzeko.



Hobekuntzak aplikatzeko orduan, iraunkortasunean sinesten da. Gero eta materiak iraunkorragoak erabili daitezke, beti ere kostu marjin batzuen barruan, produktua hobetzeko. Horrela, bezeroarekin fidagarritasuna irabaziko da, eta aukera gehiago izango dira produktu hau beste persona batzuei aholkatzeko eta erosten jarraitzeko.

Hala ere, ez da plana nahi bost hamarakda iraungo duen produktu bat, zeren eta momentu batetik aurrera, produktuari ezingo zaion etekin gehiago atera, eta ez da hori nahi.

Oreka hori lortzea zaila izango da, zeren eta botilak eusteko produktuek jasaten duten estresa nahiko handia izaten da, kolpeekin, eta botilaren pisuarekin, eta hori dena jasan behar du, baina ez du hamarkada batzuk baino gehiago iraun behar, zeren eta ez zen izango posible diru geiago lortzea puntu batetik aurrera.